



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko abuztuaren 8a

91. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- 11-25/PEOP-00002. Deialdia, oposizio bidez betetzekoa Nafarroako Parlamentuaren zerbitzupeko artxi-boko eta dokumentu-kudeaketako goi-mailako teknikaria izateko lanpostu bat, funtzionario-araubidekoa eta A mailakoa. Izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda (2 or.).
- 11-25/CCOI-00011. “Iruñeko Udalaren kontratu publikoen gardentasuna eta publikotasuna, (2023-2024)”, fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (4 or.).

Serie G:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

**11-25/PEOP-00002. Deialdia, oposizio bidez betetzekoa Nafarroako Parla-
mentuaren zerbitzupeko artxiboko eta dokumentu-kudeaketako goi-mailako
teknikaria izateko lanpostu bat, funtzionario-araubidekoa eta A mailakoa**

Izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda

83/2025 Ebazpena, abuztuaren 4koa, Nafarro-
ako Parlamentuko lehendakariarena, zeinaren
bidez onesten baita aipatu prozeduran onartuak
nahiz baztertuak izan diren izangaien behin-behi-
neko zerrenda.

2025eko ekainaren 19ko 122. NAO n argitaratu
zen Nafarroako Parlamentuaren zerbitzupeko ar-

txiboko eta dokumentu-kudeaketako goi-mailako
teknikaria izateko lanpostu bat, funtzionario-
araubidekoa eta A mailakoa, oposizio bidez bete-
tzeko deialdia, eta haren 5. oinarrian ezarritakoa-
rekin bat, honako hau EBAZTEN DUT:

1. Izangai onartuen eta baztertuen behin-behi-
neko zerrenda hau onestea:

1.1) IZANGAI ONARTUAK:

Izen-abizenak	Desgaitasuna du	Baliabideak egokitzea eskatu du
Ausín Arpón, Ana Beixi		
Bravo Eslava, Jaime		
Calvo Berdonces, José Ángel		
Del Río Pozo, Nuria		
Díaz Francés, Maite		
Díez Lecumberri, Sonia		
Domínguez Rodríguez, Onintze		
Elcano Sanz, Eduardo		
Filgueira Izcue, Carmen Aranzazu		
Goñi Equisoain, Gonzalo		
Guinea Errasti, Borja		
Gurpegui Olloqui, Míriam		
Idoate Ancín, Raquel		
Lacarra Martín, Carmen		
Lafuente Falces, Pablo		
Lizarraga Pérez de Zabalza, Silvia		

Monge Setoain, Aitor		
Riezu Elizalde, Óscar		
Rudi Enderiz, Mikel		
Saralegi Lorenzo, Ainhoa		
Solé Llop, Ana		
Turumbay Izurdiaga, Pablo		
Van Oldenbarneveld Genaamd Tullingham, Alberto		
Vidaurreta de la Cruz, Miguel		

1.2) IZANGAI BAZTERTUAK:

Izen-abizenak	Desgaitasuna du	Baliabideak egokitzea eskatu du	Baztertze arrazoia
Aisa Larumbe, Izaskun			(1)
Leone Eguaras, Eduardo			(2) (3)
Merino Lorea, Iñigo			(2)
Munguira Elizondo, Rut	BAI		(2)
Suescun Sanz, Leyre			(2)

(1) Ez du aurkeztu eskakizun gisa exijitutako titulazio ofizialaren kopia, deialdiaren 3.5 oinarrian eskatzen dena.

(2) Ez du aurkeztu deialdian parte hartzeko eskabidea, I. eranskineko ereduaren arabera, deialdiaren 3.2 oinarrian eskatzen dena.

(3) Epea kanpo aurkeztu du (deialdiaren 4. oinarria).

2. Interesdunek zilegi dute egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztea behin-behineko zerrendaren aurka, HAMAR EGUN BALIODUNEko epean ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera, bai eta, kasua bada, egindako balizko akatsak zuzentzea ere.

Horretarako, telematikoki aurkezten ahalko dute eskabidea. Eskabidea Nafarroako Parlamentuaren egoitza elektronikoan dago eskuragarri

(<https://sede.parlamentodenavarra.es/opencms/system/modules/sede/index?lang=eu/>), Administrazio-izapideak / Langile-deialdietarako eskabidea atalean. Modu presentzian ere aurkezten ahalko da eskabidea Nafarroako Parlamentuaren Erregistro Orokorrean, aurrez aurreko arretarako ordutegian (astelehenetik ostiralera 09:00etatik 14:00etara).

Iruñean, 2025eko abuztuaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/CCOI-00011. “Iruñeko Udalaren kontratu publikoen gardentasuna eta publikotasuna, (2023-2024)”, fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

2025eko ekainaren 23an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak “Iruñeko Udalaren kontratu publikoen gardentasuna eta publikotasuna (2023-2024)” gaiari buruzko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 230. artikuluan ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Adieraztea “Iruñeko Udalaren kontratu publikoen gardentasuna eta publikotasuna (2023-2024)” gaiari buruzko fiskalizazio-txostenaren edukiaren jakinaren gainean dagoela.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Erabaki hau Kontuen Ganberari jakinaraztea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

AURKIBIDEA

PÁGINA

I. SARRERA	4
II. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA	5
III. IRITZIA	7
III.1 Legedi-betetzeari buruzko fiskalizazioko iritzia	7
IV. IRITZIAREN OINARRIA	8
IV.1 Legedi-betetzeari buruzko salbuespendun iritziaren oinarria	8
V. AUDITORETZAKO GAI GILTZARRIAK	9
VI. IRUÑEKO UDALAREN ETA HAREN MENDEKO ERAKUNDEEN ERANTZUKIZUNA	10
VII. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA	11
VIII. GOMENDIOAK	12
1. GEHIGARRIA. GARDENTASUNA ETA PUBLIKOTASUNA	13
2. GEHIGARRIA. LEGEDI-BETETZEAREN FISKALIAZIOKO BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA GEHIGARRA BATZUK	14
2.1 2023ko eta 2024ko ekitaldietan esleitutako kontratuak	14
Kontratazioaren atarian jasotako kontratugintza-jarduerari buruzko informazio orokorra	15
2.3 2023ko eta 2024ko ekitaldietan izapidetutako kontratazio-espeditenteen laginaren argitalpena Kontra- tazioaren Atarian	17
1. ERANSKINA: 2023 ETA 2024KO EKITALDETAKE AZTERTUTAKO KONTRATUEN LAGINA	19
2. ERANSKINA: NAFARROAKO KONTRATAZIOAREN ATARIAN DERRIGORREAN ARGITARATU BEHARREKO INFORMAZIOA ..	22
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK	25
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMATEN DIEN ERANTZUNA	

I. SARRERA

Kontuen Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, eta 2025erako fiskalizazio-programarekin bat, fiskalizazioa egin dugu Iruñeko Udalaren eta haren mendeko erakundeen 2023ko eta 2024ko ekitaldietako kontra-tazio publikoaren gardentasun- eta publikotasun-betebeharren betetze-mailari buruz.

Kontuen Auzitegiarekin lankidetzan egin da lan hau, 200.000tik 300.000ra bitarteko populazioa duten udalerrien kontratu-etako gardentasun- eta publikotasun-betebeharren betetzeari buruzko fiskalizazioaren esparruan.

Landa-lana 2025eko urtarrilean eta otsailean egin zuen lantalde batek, zeina legelari batek, auditoretza-teknikari batek eta auditore batek osatzen baitzuten, Kontuen Ganberako zerbitzu informatiko eta administrazioen laguntzarekin.

Lan honen emaitzak helarazi zitzaizkien Iruñeko Udaleko gerenteari, Iruñeko Udaleko Haur Eskolak erakunde autonomo-etako zuzendari kudeatzaileei eta Hirigintza Gerentziari, Animsa, Comiruna, Mercairuna eta Iruña Biziberritzen enpresa publikoei eta Gaiarre Antzokia Udal Fundazioari, alegazioak aurkez zitzaizten, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritako-ari jarraituz.

Epea amaitu da, eta alegazioak aurkeztu dituzte Iruñeko Udaleko gerenteak eta Comirunako gerenteak. Alegazioak, behin aztertuta, txostenean jaso dira Ganbera honen erantzunarekin batera, eta, horrenbestez, txostena behin betiko gisa ematen da.

Lan hau egitean emandako laguntza eskertzen diegu Udaleko langileei eta haren mendeko erakundee-takoei.

II. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Legedi-betetzeari buruzko fiskalizazioa egin dugu, helburu hauekin:

- Gardentasun- eta publikotasun-betebeharren betetze-maila aztertzea, Udalaren eta haren mende-ko erakundeen kontratu-jarduerari buruz Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratutako informazio oro-korrari dagokionez.
- Kontratazio-espedienteen lagin baten izapideetan, gardentasuneko eta publikotasun aktiboko bete-beharren betetze-maila aztertzea –txosten honen 2. eranskinean zehaztu ditugu–, Kontratu Publikoei buruz-ko Foru Legearen (aurrerantzean, KPFL) 88. artikuluan eta Gardentasunari, informazio publikoa eskura-tzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen (aurrerantzean, GFL) 23. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Norainokoak ez du barruan hartzen kontratazio-espedienteen izapidetzearen legedi-betetzea.

Iruñeko Udalak eta haren mendeko erakundee-k osatzen dute fiskalizazioaren esparru subjektiboa, eta hauek dira Udalaren mendeko erakundeak.

Erakunde autonomoak	Xedea
Udaleko Haur Eskolak	Haur eskolen zerbitzua kudeatzea
Hirigintzako udal-gerentzia	Iruñeko udalerriko hirigintza-kudeaketa

Merkataritza-sozietatea	Partaidetza (%)	Objektu soziala
Comiruna, SA	100	Txikizkako merkatuak
Pamplona Centro Histórico-Iruña Biziberritzen, SAU	100	Hirigune historikoko hirigintza
Animsa, SA	77,69	Udal-informatika
Mercairuna, SA	51	Handizkako merkatuak

Fundazioak	Xedea
Gayarre Antzokia	Gayarre antzokiaren kudeaketa eta administrazioa

Esparru objektiboa osatzen dute fiskalizatutako erakundeen kontratugintzaren gardentasun- eta publiko-tasun-jarduketek, munta txikiko kontratuak alde batera utzita.

Denbora-esparrua osatzen dute 2023ko eta 2024ko ekitaldietan esleitutako kontratuak. Hona hemen 2023ko eta 2024ko aztertutako kontratuen lagin osoa, txosten honen 1. eranskinean zehazten dena, eta ekitaldi bakoitzean esleitutako kontratuen guztizkoarekiko egiten duen ehunekoa:

Aztertutako kontratuen lagina	2023			2024		
	Esleipenaren prezioa		Esleitutako kontratuen guztizkoarekiko %	Esleipen- prezioa		Esleitutako kontratuen guztizkoarekiko %
	Kontratu kop.	BEZik gabe		Kontratu- kop.	BEZik gabe	
Udala	8	23.475.303	36	14	10.463.124	47
Mendeko erakundeak						

Honako hauek osatzen dute fiskalizazioaren arau-esparrua: 5/2018 Foru Legea, maiatzaren 17koa, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa; eta 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa.

III. IRITZIA

Nafarroako Kontuen Ganberak, bera arautzen duen 19/1984 Foru Legeak esleitzen dizkion eskumenak baliatuz, Iruñeko Udalak eta haren mendeko erakundeek 2023ko eta 2024ko ekitaldietan esleitutako kontratuen gardentasun- eta publikotasun-betebeharrak fiskalizatu ditu.

III.1 LEGEDI-BETETZEARI BURUZKO FISKALIZAZIOKO IRITZIA

Gure iritziz, gure txosteneko “Legedi-betetzeari buruzko salbuespendun iritzia” atalean deskribatutako kontuak alde batera utzita, eta egindako lanaren norainokoa kontuan hartuta, Iruñeko Udalak eta haren mendeko erakundeek bete dituzte gardentasun- eta publikotasun-betebeharrak Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratutako kontratugintzari buruzko informazioari dagokionez.

IV. IRITZIAREN OINARRIA

Fiskalizazioa egin dugu kanpo-kontrolako erakunde publikoen funtsezko fiskalizazio-printzipioei jarraituz eta, zehazkiago, legedi-betetzeari buruzko fiskalizazioen gaineko ISSAI-ES 400 arauari jarraituz, bai eta kanpo-kontrolako organoen fiskalizazio-gida praktikoei jarraituz ere. Arau horien indarrez dugun erantzukizuna aurrerago deskribatzen da, gure txosteneko “Kontuen Ganberaren erantzukizunak” atalean, gure txosteneko legedi-betetzearen gainean egiten den fiskalizazioari buruzkoan.

Fiskalizatutako entitatearekiko independenteak gara, kontu orokorrari buruzko gure fiskalizazioan aplikatu behar diren etika-baldintzekin eta independentzia babestearen arlokoekin bat etorritik, fiskalizazio publiko-jarduerari buruzko arau-diak eskatzen duen bezala.

Gure ustez, lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako eta behar bezalako oinarria ematen du legedi-betetzearen fiskalizazioko gure salbuespendun iritzia adierazteko.

IV.1 LEGEDI-BETETZEARI BURUZKO SALBUESPENDUN IRITZIAREN OINARRIA

Udalak eta haren mendeko erakundeek ez dute Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratu honako informazio hau 2023ko eta 2024ko kontratazio publikoko jarduerari buruz, aztertutako kontratu-laginari dagokionez: aldatutako kontratuak, suntsiarazitako kontratuak eta amaitutako kontratuak.

V. AUDITORETZAKO GAI GILTZARRIAK

Auditoretzako gai giltzarri dira gure iritzi profesionalaren arabera esanahi handiena izan dutenak 2023-2024 aldiko legedi-betetzeaz egin dugun fiskalizazioan. Auzi horiek jorratu ditugu legedi-betetzeari buruz egin dugun fiskalizazioaren testuinguruan, eta ez dugu horiei buruzko iritzi bereizirik adierazten.

Txosten honetako "Legezkotasuna betetzeari buruzko salbuespandun iritzia oinarria" atalean azal dutako gorabeherak salbu, ez dugu gure fiskalizazioan funtsezkotzat jotako inongo gorabeheraren berri ematen.

VI. IRUÑEKO UDALAREN ETA HAREN MENDEKO ERAKUNDEEN ERANTZUKIZUNA

Udalak eta haren mendeko erakundeek arduratu behar dute Nafarroako Kontratazioaren Atariaren bidez kontratazio publikoaren gardentasuna bermatzeaz, apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legean, Kontratu Publikoari buruzkoan, eta maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legean, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoan, ezarritako informazioari dagokionez.

Era berean, Udalaren eta haren mendeko erakundeek erantzukizuna da beharrezkotzat jotzen dituzten barne-kontrolako sistemak ezartzea, bermatuko dutenak egindako jardueran ez dagoela ezer legez kanpo korik.

VII. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure helburua da arrazoizko ziurtasuna lortzea Udalak eta haren mendeko erakundeek 2023ko eta 2024ko ekitaldietan egindako kontratazio publikoaren gardentasuna eta publikotasuna aplikatzekoa den araudiaren arabera izateaz, legedi-betetzeari buruzko fiskalizazio-txosten bat emate aldera, zeinetan jasoko den gure iritzia.

Arrazoizko ziurtasun hori ziurtasun handia da, baina ez du bermatzen kanpo-kontrolako organoei buruzko araudiari jarraituz egindako fiskalizazio batek beti atzemanen duenik urraketa muntadun bat, halakorik dagoenean. Legediaren ez-betetzeak iruzurraren edo errorearen ondorio izaten ahal dira, eta oker materialtzat jotzen dira Kontuen Ganbera honen irizpideak aplikatuta eta zentzutasunez aurreikusten ahal bada eragina izanen dutela txostenen erabiltzaileen erabaki ekonomikoetan.

Kanpo-kontrolako organoei buruzko araudiari jarraituz egindako fiskalizazio baten parte gisa, gure iritzi profesionala aplikatzen dugu, eta eszeptizismo profesionaleko jarrerari eusten diogu auditoretza osoan. Gainera:

- Ez-betetze esanguratsuak izateko arriskuak identifikatu eta balioesten ditugu, auditoretza-prozedurak aplikatzen ditugu arrisku horiei erantzuteko, eta gure iritzia oinarria emateko behar besteko eta behar bezalako auditoretza-ebidentzia lortzen dugu. Iruzurraren ondoriozko ez-betetze esanguratsu bat ez atzemateko arriskua handiagoa da errorearen ondoriozko oker material bat ez atzematekoa baino; izan ere, iruzurra dagoenean, tartean izaten ahal dira kolusioa, faltsutzea, berariazko omisioak, berariazko adierazpen okerrak edo barne-kontrolaren saihestea.
- Barne-kontrolari buruzko ezagutza, fiskalizaziorako esanguratsua dena, lortzen dugu, xede hartuta inguruabarren arabera egokiak diren auditoretza-prozedurak diseinatzea, eta ez, ordea, entitatearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko.
- Kudeaketa-organismoak emandako dagokion informazioa ebaluatzen dugu.

Erakundearen gobernu-organismoarekin harremanetan jartzen gara; besteak beste, planifikatutako auditoretza-proben norainokoari eta horiek egiteko uneari dagokienez, bai eta fiskalizazioaren aurkikuntza esanguratsuei eta fiskalizazioan zehar barne-kontrolari buruz identifikatzen dugun edozein akats adierazgarri dagokienez ere. Entitateko gobernu-organismoari jakinarazi zaizkion zertzeladen artean, zehazten dugu zein gai izan diren fiskalizazioan munta handienekoak eta, horrenbestez, auditoretzan giltzarri izan direnak.

VIII. GOMENDIOAK

Ganbera honek honako hau gomendatzen du kontratazio publikoaren gardentasun- eta publikotasun-betebeharren betetzeari fiskalizazioko lanaren emaitza gisa:

- *Aldatutako, suntsiarazitako eta amaitutako kontratu guztiei buruzko informazioa argitaratzea Nafarroako Kontratazioaren Atarian.*

- *Datuak formatu ireki eta berrerabilgarrietara esportatzeko modua ematen duen formatu batean argitaratzea informazioa Nafarroako Kontratazioaren Atarian, horien ustiapen eta azterketa baterakoa eta agregatua egin ahal izateko.*

Txosten hau jaulkitzen da, indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen izapideak bete ondoren, lan honen arduradun Asunción Olaechea Estanga auditoreak proposatuta.

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak: Ignacio Cabeza del Salvador

1. GEHIGARRIA. GARDENTASUNA ETA PUBLIKOTASUNA

Gardentasuna gobernu irekiaren sistemaren funtsezko balioa da, eta administrazio publikoen jarduera eta antolaketa osora hedatu behar da. Administrazio publikoen betebeharra da duten informazio publikoa herritarren eskura jartzea, haren jabe legitimoak diren heinean, eta ezagutzea ematea beren eskumenei jarraituz egindako prozesuak eta hartutako erabakiak, bai eta beren eginkizunak betetzean eta ebaluatzean egindako jarduketak ere.

Kontratazio publikoa da administrazio publikoen eta haien mendeko erakundeen jardueren artetik finantza-baliabide publikoen bolumen handiena bideratzen duenetako bat. Hori horrela, GFLk gardentasuneko eta publikotasun aktiboko betebeharrak jakin batzuk ezarri ditu kontratazio publikoaren alorrerako, zeinak forulege horren mende dauden subjektuek bete behar dituzten. Horietan artean dauden Nafarroako toki-erakundeak eta haien mendeko erakundeak.

Gardentasun-betebeharrak GFLren 11. artikuluan daude jasota, eta kontratazio publikoaren publikotasun aktiboko betebeharrak, 23. artikuluan. Artikulu horretan xedatutakoaren arabera, KPFLren 88. artikuluan araututako Nafarroako Kontratazioaren Atariaren bidez antolatuko da kontratazio publikoaren gardentasuna. Atari hori ez da izan lizitazioei publikitatea emateko bitarteko ofizial bat soilik, informazioa emateko funtsezko tresna ere izanen baita.

Laburbilduz, Nafarroako Kontratazioaren Ataria da forulege horietan kontratugintza-jardueran gardentasun- eta publikotasun-betebeharrak betetzeko ezartzen den kontratazio publikoari buruzko informazio-iturri bakarra.

2. GEHIGARRIA. LEGEDI-BETETZEAREN FISKALIZAZIOKO BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA GEHIGARRI BATZUK

Ondoren, ohar eta iruzkin batzuk gehitu ditugu, bai eta Ganbera honen ustez fiskalizazio-txosten honen hartzaile eta erabiltzaileentzat interesgarri gertatzen ahal den informazio gehigarriren bat ere.

2.1 2023KO ETA 2024KO EKITALDIETAN ESLEITUTAKO KONTRATUAK

Nafarroako Kontratazioaren Atarian kontratu-esleipeneko iragarkiak argitaratzeak horiek zuzenean Kontratuen Erregistrora igortzea eragiten du. Honako taula hauetan jaso dira Udalak eta haren mendeko erakundeek 2023ko eta 2024ko ekitaldietan esleitutako kontratu-kopuruak, kontratuen erregistroko informazioaren arabera¹:

- Sektore publiko administratiboa

Erakundea	2023ko		2024ko	
	Kop.	Esleipenaren zenbatekoa BEZik gabe	Kop.	Esleipenaren zenbatekoa BEZik gabe
Udala	48	64.854.072	103	22.252.954
Haur Eskolak erakunde autonomoa	-	-	-	-
Hirigintzako Gerentzia erakunde autonomoa	-	-	7	816.429

(1) 2025eko otsailaren 28an ateratako informazioa.

• Udal sozietate publikoak:

Erakundea	2023		2024	
	Kop.	Esleipenaren zenbatekoa	Kop.	Esleipenaren zenbatekoa
		BEZik gabe		BEZik gabe
Animsa	45	2.226.205	24	849.093
Comiruña, SA	-	-	-	-
Mercairuña, SA	-	-	1	14.400
Iruña Biziberritzen, SAU	3	391.110	2	160.264
Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua SLU	0	-	0	-

• Fundazioak:

Fundazioa	2023		2024	
	Kop.	Esleipenaren zenbatekoa	Kop.	Esleipenaren zenbatekoa
		BEZik gabe		BEZik gabe
Gaiarre antzokia	2	1.179.960	6	988.535

Udalak eta haren mendeko erakundeek esleitutakoak, guztira:

Ekitaldia	Kontratu kop.	Esleipenaren prezioa
		BEZik gabe
2023	98	68.651.347
2024	143	25.081.675

2.2 KONTRATAZIOAREN ATARIAN JASOTAKO KONTRATUGINTZA-JARDUERARI BURUZKO INFORMAZIO OROKORRA

2024an esleitutako kontratuak kontratazioaren atarian argitaratzea

Aztertu dugu ea 2024an esleitutako kontratuak, Udalak eta haren mendeko erakundeek eman diguten informazioaren arabera, argitaratuta dauden kontratazioaren atarian, eta desberdintasun hauek ikusi ditugu:

- Udalak ez ditu kontratazioaren atarian argitaratu 2024an esleitutako 40 kontratu. Oro har, esparru-akordio bati jarraikiz esleitutako kontratuak ere ez dira argitaratu atarian.
- Mercairuña udal sozietateak ez ditu argitaratu 2024an esleitutako hiru kontratuetatik biren esleipen-iragarkiak, ez eta Comiruña udal-sozietateak 2024an esleitutako bi kontratuak ere.
- Gaiarre Antzokia fundazioak ez ditu atarian argitaratu kontratu artistikoak, zeinak prozedura negoziatu bidez esleitu baitira lizitazio-deialdirik gabe. 2024an, 73 kontratu izan dira guztira, eta guztizko esleipen-prezioa 692.228 eurokoa izan da.

Nafarroako Kontratazioaren Atarian eta erakundearen gardentasun-atarian argitaratutako kontratuak

Lehen esan dugun eran, Gardentasunaren Foru Legeak ezartzen du Nafarroako Kontratazioaren Ataria dela kontratazio publikoari buruzko informazio-iturri ofiziala.

Alabaina, Udalak eta haren mendeko erakunde batzuek kontratazioari buruzko informazioa jasotzen dute beren webguneetako gardentasun-atarietan.

2024an esleitutako kontratuei dagokienez, desberdintasunak aurkitu ditugu Nafarroako Kontratazioaren Atariko kontratu publikoen erregistroan argitaratutako eta erakundearen webguneko gardentasun-atarian argitaratutako kontratu-kopuruen artean.

Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratutako informazioaren ezaugarriak

Aztertu dugu ea Udalak eta haren mendeko erakundeek Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratutako informazioak betetzen dituen GFLren 11. artikuluan ezarritako eskakizunak, kontratazio publikoari aplikatzekoak zaizkionak.

Artikulu horren arabera, argitaratutako informazioak argia, egituratua eta ulergarria izan behar du, formatu berrerabilgarri eta elkarreragingarrietan egon behar du ahal dela, sarbide errazekoetan, eta formatu erabilerraz eta ulergarrietan, irisgarritasun unibertsalaren eta ororentzako diseinuaren printzipioei jarraituz. Gainera, kontratuei buruzko informazioak argitaratuta egon behar du haietatik heldu diren betebeharrekin irauten duten bitartean, eta, gutxienez ere, haiek amaitu eta beste hamar urtez.

Oro har, Udalak eta haren mendeko erakundeek Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratzen duten kontratazioari buruzko informazioak betetzen ditu eskakizun horiek; salbuespen bakarra da ez dagoela formatu berrerabilgarri eta elkarreragingarrietan, eta formatuak ez direla erabilerrazak eta ulerterrazak desgaitasuna duten pertsonentzat.

Argitaratutako informazio orokorrari dagokionez, egiaztatu dugu Udalak eta haren mendeko erakundeek argitaratzen dutela Nafarroako Kontratazioaren Atarian kontratazio-erakundearen eta -organoen informazioa, hala nola harremanetarako helbidea, posta elektronikoko kontua eta telefono-zenbakia. Ez da posta-helbidea aipatzen.

Oro har, kontratazio-organoa ez da zehazten atarian; aldez, administrazioa bera edo mendeko erakundearen erakunde deialdi-egilea dela esaten da.

2.3 2023KO ETA 2024KO EKITALDIETAN IZAPIDETUTAKO KONTRATAZIO-ESPEDIENTEEN LAGI-NAREN ARGITALPENA KONTRATAZIOAREN ATARIAN.

2. eranskinean zehazten da Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratu behar den informazioa, KPFLren 88. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Aztertu dugu ea argitaratu den informazio hori, 2023ko eta 2024ko ekitaldietan izapidetutako kontratazio-espedienteen lagin bati dagokionez –txosten honen 1. eranskinean zehaztu dira espedienteak–: 2023ko ekitaldiko 12 espedientek eta 2024ko ekitaldiko 24k osatzen dute lagina.

Oro har, Udalak eta haren mendeko erakundeek KPFLn ezarritako informazio gehiena argitaratu dute lizitazioei eta esleitutako kontratuei dagokienez.

Lizitazioak

Oro har, abian diren lizitazioei buruzko informazioan adierazita daude KPFLn ezarritako datu guztiak.

- Esparru-akordio batean oinarrituta esleitutako kontratuei buruz argitaratutako informazioa ez da homogeneoa kontratazio-espediente guztien artean. Kontratu batzuetan, esparru-akordio batetik sortutako kontratua dela adierazten da, eta, beste batzuetan, kontratazio-prozedura adierazten da.
- Lizitazio-iragarkian ez dira modu bereizian adierazten esleipen-irizpideak, bereziki prezioa, irizpide sozialak, ingurumenekoak, generoari dagozkionak eta berrikuntzarekin lotutakoak. Edonola ere, horiek adierazten dira kontratua arau-tzen duen pleguan, eta, kasu guztietan, iragarkiari atxikita dago hori.

Kontratazioaren atariko lizitazio-iragarkiak ez du kontratazio-mahaien osaera adierazteko eremurik; alabaina, informazio hori jasota dago kontratua arautzen duen pleguan.

Ez dago modurik lizitazio-iragarkitik aurre-informazioaren iragarkira edo kontratu-esleipeneko iragarkira sartzeko.

Esleitutako kontratuak

Esleitutako kontratuei buruz kontratazioaren atarian adierazi behar den informazioari dagokionez, urritasun hauek ikusi ditugu:

- Kontratazio-mahaiaren aktak ez dira beti argitaratzen, eta, beraz, ez dira ezagutzera ematen eskaintza ekonomikoen eta proposamen teknikoen alderaketa-taulak, bakoitzaren puntuekin eta arrazoen laburpenarekin.
- Oro har, ez da argitaratzen kontratua sinatu zen data.
- 2023ko ekitaldian, Udalak bi aldiz argitaratu zuen kontratu baten esleipen-iragarkia kontratazioaren atarian, prozedura-mota desberdinez.

Luzatutako kontratuak

2023an esleitutako eta luzatutako lau kontratuetatik bakarraren luzapena argitaratu da kontratazioaren atarian.

Aldatutako kontratuak

Kontratazioaren atarian ez da argitaratu Udalari dagozkion eta 2023an aldatu ziren bi kontratuei buruzko informaziorik.

Argitaratutako kontratu aldatuetan, ez da adierazi zenbatekoa izan den aldaketa-ehunekoa esleipen-zenbatekoari dagokionez.

Suntsiarazitako kontratuak

Kontratazioaren atarian ez da argitaratu suntsiarazitako kontratuei buruzko informaziorik. Lau izan ziren 2023an, eta beste lau 2024an.

Amaitutako kontratuak

Ez da argitaratu amaitutako kontratuei buruzko informaziorik. Bi izan ziren 2023an, eta bost 2024an. Amaitutako kontratuetak baten gauzatzea azpikontratatuta egin zen, eta, beraz, azpikontratatzearen informaziorik ere ez da argitaratu.

Ohiko galderei buruzko informazioa eta kontratuen edukia argitzeko azalpenak.

Ez da argitaratu galderei eta azalpenei buruzko informaziorik 2023ko bi kontraturi eta 2024ko bati dagokienez.

Laburbilduz, kontratazioaren atarian ez da argitaratu kontratazio publikoaren fase guztiei buruzko informazioa, eta, beraz, ez da bermatzen kontratu-kudeaketaren benetako gardentasuna.

1. eranskina: 2023 eta 2024ko ekitaldietako aztertutako kontratuen lagina

2023ko ekitaldiko kontratuen lagina

● Iruñeko Udala

Kontratuaren xedea	Prozedura	Esleipenaren prezioa BEZik gabe
Iruñeko berdeguneen mantentze- eta zainketa-lanak	LDGPN*	4.787.170
Egoiliarrentzako lurpeko aparkalekuaren eraikuntza eta erabilera eta gainazaleko urbanizazioa eta berrurbanizazioa	Irekia	2.131.678
Udal-erakin eta -igogailuen zainketa- eta mantentze-lanak	Irekia	5.379.402
Done Jakue bidea parkearen 2. fasea	Irekia	1.883.931
Atezaintza, sorospena, mantentze-lanak, garbiketa eta beste zenbait lan Arantzadiko kirolgunean	Irekia	521.074
Atezaintza, sorospena, mantentze-lanak, garbiketa eta beste zenbait lan Sanduzelaiko Kirol Hirian	Irekia	484.912
Eguberrietako argiteria eta apainketa	Irekia	268.500
Eraikin eta igogailuetako energia	LDGPN	8.018.636

*Lizitazio-deialdirik gabeko prozedura negoziatua.

● Udalaren mendeko entitateak

Erakundea	Kontratuaren xedea	Prozedura	Esleipenaren prezioa BEZik gabe
Hirigintzako Gerentzia erakunde autonomoa	IUParen aldaketa egituratzailearen idazketa eta PParen idazketa Donapea esparruan	Irekia	245.100
Animsa sozietate publikoa	Iruñeko Udalaren subeki perimetralaren mantentze-lanak	Irekia	249.761
Animsa sozietate publikoa	Udalaren IKT azpiegituren euskarri erreaktiboa eta proaktiboa	LDGPN	1.507.496
Gayarre Antzokia fundazioa	Makineria eszenikoa egokitzea eta digitalizatzea	Irekia	589.980

2024ko ekitaldiko kontratuen lagina

● Iruñeko Udala

Kontratuaren xedea	Prozedura	Esleipenaren prezioa BEZik gabe
Iruñean mugikortasuna eta jasangarritasuna hobetzeko obrak	Esparru-akordio batetik sortua	982.488
Eremu publikoak birgaitzeko obrak	Esparru-akordioa	
Datu-babesarekin lotutako aholkularitza-juridikoa eta aholkularitza	Irekia	56.698
Foruen plaza asfaltatzea, 1. zatia	Esparru-akordio batetik sortua	155.663
Gaztediaren Elxea zerbitzuaren kudeaketa	Irekia	1.194.240
Argiteria publikoko instalazioen mantentze- eta zainketa-lanak	Irekia	6.832.950
Ibilgailu manipulatzaila teleskopiko bat eta iraulki-kamioi bat erostea	Irekia	135.400
Udalaren boluntarioritza-zerbitzua	Irekia	125.560
Argazkigintza-zerbitzuak	Irekia	27.893
Iruñeko hiru ibairen garbiketa.	Sinplifikatua	78.155
Aurrekontuen genero-inpaktuaren proiektua	Sinplifikatua	38.000
Mercaderes kaleko lokala zaharberritzea Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan – Lizitazio berria	Sinplifikatua	155.645
Bero-energiaren homidura ur bero gisa Txantreako zentralako saretik	LDGPN	628.636
Zur teknikoko zoladuraren homidura eta instalazioa Yamaguchi parkean	Sinplifikatua	51.796

●Udalaren mendeko entitateak

Erakundea	Kontratuaren xedea	Prozedura	Esleipenaren prezioa BEZik gabe
Hirigintzako Gerentzia erakunde autonomia	2024ko ekitaldiko kontuen auditoretza	Sinplifikatua	8.000
Hirigintzako Gerentzia erakunde autonomia	Arrotxapeko uholdeak kolektoreen eta atzerazeko balbulen bidez zuzentzeko proiektuko obren kontratuaren baldintza bereziak	Irekia	166.123
Animsa sozietate publikoa	Urteko kontuen auditoretza	Sinplifikatua	20.700
Animsa sozietate publikoa	Inprimatze-kontsumigarrien ESD (Erosketa Sistema Dinamikoa) (513)	Erosketa Sistema Dinamikoa	
Mercairuña sozietate publikoa	Auditoretza eta legezkotasun-txostena	Sinplifikatua	14.400
Iruña Biziberritzen sozietate publikoa	Arrosadia auzoan trantsizio energetikoa sustatzeko hurbileko bulegorako altzari- hornidura eta -muntaketa	Sinplifikatua	15.000
Gayarre Antzokia fundazioa	Gayarre Antzokiaren garbiketa	Irekia	275.000
Gayarre Antzokia fundazioa	Gayarre Antzokiko ikuskizunetako argiteria digitalizatzeke erregulazio- eta kontrol- azpiegiturak	Irekia	278.393
Gayarre Antzokia fundazioa	Ikuskizunetako argiteria	Irekia	293.693
Gayarre Antzokia fundazioa	Kontabilitate- eta auditoretza-zerbitzuak	Sinplifikatua	14.750

2. ERANSKINA: NAFARROAKO KONTRATAZIOAREN ATARIAN DERRIGORREAN ARGITARATU BE-HARREKO INFORMAZIOA

KPFLren 88. artikuluan xedatutakoaren arabera, honako informazio honek agertu behar du Nafarroako Kontratazioaren Atarian:

a) Entitate eta kontratazio organoei buruzko **informazio orokorra**: esate baterako, harremanetarako helbidea, telefono-zenbakiak, posta-helbidea eta posta elektronikoaren kontua.

b) **Aurreikusitako lizitazioei** buruzko informazioa. Aurre-informazioaren iragarkiek honako informazio hau jasoko dute, gutxienez ere:

1. Deialdia egin duen entitatea
2. Kontratazio-modalitatea.
3. Kontratu-mota.
4. Kontratazio-prozedura.
5. Xedearen deskribapena.
6. Balio zenbatetsia.
7. Aurreikusitako lizitazio-data.
8. CPV kodea.
9. Kasua bada, iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialera igorri zeneko data.

c) **Abian dauden lizitazioei** buruzko informazioa, aurre-informazioaren iragarkirako sarbidearekin eta, gainera, honako informazio hau:

1. Artikulu honen 2. apartatuko b) letran aipatutako informazio guztia.
2. Kontratazio-organoa.
3. Esleipen-irizpideak: batez ere, prezioa eta gizarte, ingurumen, genero eta berrikuntzaren arloetako irizpideak.
4. Lizitazio-prezioa.
5. Eskaintzak edo eskaerak aurkezteko epea.
6. Eskaintzak aurkezteko tokia.
7. Kontratazioaren Atarian zer datatan argitaratu den.
8. Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean zer datatan argitaratu den.
9. Kontratuaren exekuzio-epea edo iraupena.
10. Epe-luzapenetarako aukerak.
11. Kontratuaren pleguen eta, egonez gero, gainerako dokumentazio osagarriaren eskuragarritasun erabatekoa.
12. Kontratazio-mahaiaren osaera.

d) **Esleitu gabe** utzitako kontratuak eta **deuseztatutako** lizitazio eta esleipenak, egoera horietara eramaten duten arrazoiak adierazita.

e) **Esleitutako kontratuak**, lizitazioari dagokion informazioa eskuragarri jarririk, bai eta:

1. Lizitatzailerako kopurua.
2. Parte hartzen duten ETEen kopurua.
3. Lizitatzailerako izena eta IFZ.
4. Esleipendunaren izena eta IFZ.
5. Esleipenaren zenbatekoa.

6. Esleipen-data.

7. Esleipenaren argitaratze-eguna eta kontratazio-mahaien aktak, zeinetan nahitaez jasota ageri beharko baita eskaintza ekonomikoen eta proposamen teknikoen konparazio-koadroa, haietako bakoitzak irizpide bakoitzagatik lortutako puntuazioekin, bai eta arrazoiketaren laburpen bat ere.

8. Kontratu-formalizazioaren eguna.

f) **Epe-luzapena izan duten kontratuak**, aurreko apartatuetako informazioa eskuragarri jarririk eta, bereziki, epe-luzapenaren iraupena.

g) **Aldatutako kontratuak**, esleipenari dagokion informazioa eskuragarri jarririk, bai eta:

1. Aldaketa-mota.
2. Aldaketaren zenbatekoa.
3. Aldaketak egiten duen portzentajea, esleipenaren zenbatekoarekiko.
4. Aldaketa egin deneko data.
5. Aldaketaren arrazoa eta justifikazioa.

h) **Suntsiarazitako kontratuak**, aurreko apartatuetako informazio guztia eskuragarri jarririk eta, horrez gain, suntsiarazpenen arrazoiak eta ondorioak.

i) **Bukatutako kontratuak**, aurreko apartatuetako informazioa eskuragarri jarririk eta, horrez gain, honako hau:

1. Kontratuaren amaieran egindako likidazioaren zenbatekoa.
2. Kontratututako prestazioaren amaierako kostuak esleitutako zenbateko-aren aldean izandako desbiderapena.
3. Kontratu-lagapenari eta azpikontratazioari buruzko informazioa, lagapen-hartzaileen edo azpikontratisten nortasuna zehaztuta, bai eta azpi-kontratututako kontratu bakoitzaren zenbatekoa eta esleipen-prezioaren gainean egiten duen portzentajea ere.
4. Prezio-berrikuspenari buruzko informazioa eta kontratisten ez-betetzeagatik ezarritako zigorrei buruzkoa.

j) Entitate bakoitzak esleitutako **munta txikiko kontratuei** buruzko informazioa, hiru hilabeteen behin eguneratua, esleipenduna nor den eta zenbatekoa zein izan den zehaztuta.

k) **Datu estatistikoak**, kontratazio-organoen arabera, urtealdika zehazten dutenak foru lege honetan aurreikusitako prozedura eta moduen bitartez esleitutako kontratuek aurrekontu-bolumenaren ikuspegitik egiten duten portzentajea.

l) Kontratuen edukiari buruz **maiz egiten diren galderei eta ematen diren azalpenei** buruzko informazioa.

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Nik, Jose M^a Elgorriagak (NAN zk.: 33444626g), Iruñeko Txikizkako Saltokien Sozietate Anonimoa-Comiruña SAko gerente naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut:

- Bi kontratazio-espedienteak (armairu adimendunen hornidura eta instalazioa eta Zabalgunekeko merkaturuko erabilera anitzeko gelarako ekipamenduen hornidura) esleipenari buruzko dokumentazioa argitaratzeko zeuden.

- Gaur, 2025eko ekainaren 4an, dokumentazio hori Kontratazioaren Atarira igo da, eta amaitutzat eman da prozesu osoa.

- Egoera hori egiaztatzen duen dokumentazioa eranskin gisa erantsi da. Hori guztia jakinarazten dizut behar diren ondorioak sor ditzan.

Sinatua: Jose M^a Elgorriaga Almandoz

Gerentea

ALEGAZIO-IDAZKIA:

2025eko maiatzaren 28an, Kontuen Ganberako lehendakari Ignacio Cabeza del Salvador jaunak ebazpena eman zuen, «Iruñeko Udalaren kontratuen gardentasuna eta publikitatea, 2023-2024» behin-behineko fiskalizazio-txostena onartzeko. Ebazpen horretan, Iruñeko Udalari helarazi zitzaion, azter zezan eta, hala badagokio, alegazioak egin zitzaizkion, 2025eko ekainaren 4ra arte.

Txosten horrek, besteak beste, honako gomendio hau jasotzen du:

Datuak formatu ireki eta berrerabilgarrietara esportatzeko modua ematen duen formatu batean argitaratzea informazioa Nafarroako Kontratazioaren Atarian, horien ustiapen eta azterketa baterakoa eta agregatua egin ahal izateko.

Halaber, aitortzen bada ere Udalak eta haren mendeko erakundeek KPFLn ezarritako informazio gehiena argitaratu dutela lizitazioei eta esleitutako kontratuei dagokienez, honako hutsune hauek azpimarratzen ditu:

Kontratazioaren atariko lizitazio-iragarkiak ez du kontratazio-mahaiaren osaera adierazteko eremurik; alabaina, informazio hori jasota dago kontratua arautzen duen pleguan.

Ez dago modurik lizitazio-iragarkitik aurre-informazioaren iragarkira edo kontratu-esleipeneko iragarkira sartzeko.

Gomendio eta hutsune zehatz horiei dagokienez, Iruñeko Udalari interesatzen zaio adieraztea Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratzerakoan inprimakien bidez tipifikatutako izapideak erabiltzen direla, eta argitaratzen dituzten erakundeek ezin dituzte aldatu, ez informazio motari eta kantitateari dagokienez, ez formatuari dagokienez.

Kontratazio Publikorako Batzordearen eginkizunen barruan sartzen da Nafarroako Kontratazioaren Ataria kudeatzea, mantentzea eta eguneratzea, Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legearen 88. artikuluan eta Kontratazio Publikorako Batzordea arautzen duen 74/2019 Foru Dekretuaren 2.1.g) artikuluan arabera.

Beraz, eta aipatutako gomendio eta hutsunei dagokienez, Iruñeko Udalak ez du horiek ezabatzeko eta hobetzeko ahalmenik.

Iruñean, 2025eko ekainaren 4an

Sinatua: Ana M^a Jiménez Marco, Zuzenbidean lizentziatua eta Iruñeko Udaleko kontratazio publikoko burua.

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMATEN DIEN ERANTZUNA

Eskerrak ematen dizkiegu Comirunako gerenteari eta Iruñeko Udaleko gerenteari aurkeztutako alegazioengatik. Alegazio horiek behin-behineko txostenari eransten zaizkio, zeina behin betiko txosten bihurtzen baita, haiei buruz irizten baita ezen egindako fiskalizazioaren azalpen bat direla eta ez dutela haren edukia aldatzen.

Iruñean, 2025eko ekainaren 12an

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador